

TXINA ta JAPOI

Europaren dirdaripean

*Joseba Intxausti*

Tituluak berak eskaturik, bi zatitan atalduko dut gaia: Txina alde batetik, Japoi bestetik. Europa mundu guzira zabaldu zaigu, ta beronen filosofia ere bai. Urruneko nazio hauetan zeregin berezia izan du gaiñera, Sortalde haietako kultura tarteko zelarik. Zerikasi mardulak dauzka delako "Hirugarren munduak" Japoi batengan adibidez, giza-jende aunitzek behar duten kultura-sintesia egitera heldu direla esan bailiteke japoitarrak. Txina, berriz, kon-dairakoa ez-ezik etorkizunerako herria ere ba-da. Honegatik, ez dugu ezer galduko bi herri hauen egungo Filosofiak ezagutu ta beren Europa'rekiko zerikusia miratuaz.

## I.—TXINA'KO FILOSOFIA TA EUROPA.

Txina'ko Filosofiak ba-du Japoi'koak ez duen zerbait: tradizio zahar eta baliotsu bat. Nork ez ditu ezagutzen Konfuzio ta Lao-tse? Txina'k, harrezkero, ibillaldi luzeak egin ditu bide honetatik. Gogora ditzagun bi izen soillik: TXU HI (1130-1200 K.ondotik) ta BANG JANK-MING (1472-1529). Kondaira zehar hiru pentsa-moldetan isuria da txinatar he-

rriaren gogo. Konfuzionismua ta Taonismua bi mundu desberdin dira ta biak txinatarrak jatorriz; budismua, berriz, India'tik landatua da.

Basoan galtzeke molda gaitezen, bi ataletan banatuko da lana. Lehenbizikoan, Txina'ko Filosofiak gure mende honetan emandako pausoeri jarraituko diegu. Zehatzmehatz haundirik gabe, hori bai. Ondoren (ez noski beste ibil-bide horren kanpotik joan direlako, merezi duten inportantzia ematearren baiño), Txina'ko adimen-gizandiak ezagutuko ditugu; jakia, gaurkoak soillik.

#### a) **Filosofiaren hara-honakoa.**

1905'a da Txina'n odol-isurigebeke erreboluzio baten argi-urratzea. Urte honetan, lau milla urteko istoriari sorbalda eman zitzaion eta zazpi giltzaz itxita zeuden txinatar gogoaren burni-ateak aldenik alde iriki ziren. Irakaskintzan Sartaldeko erara jarriko dire esamifiak, Sartaldeko hizkuntzak irakatsiko dire, ta Europa'tik jasoko jakintzak ere. Hemezizigarren mendean ongi ikusi zuen Txina'k begitan zeuzkan kanpotarrek zeukatela benetako indarra, ta nahiko argala zela sort-herria. Beraz, etsaiaren armak hartu behar zituen, eta gogoz kontra izanik ere halaxen egin zen. Eginbehar honetan intelektualek hartu zuten herriaren gidaritza.

KANG JU-BEI (1858-1927) da lehenengoa. Konfuziotiar porrokatua zen eta guziotan haundiena. "Ondorengo belaunaldientzat imitagarria da Konfuzio. Filosofu guzien jaun da bera", zion Ju-bei'k. Europa'ren irudira, Txina'k ere erlijio bat behar du,

ta bere-berea duen ta guzien gaidikoa den Konfuzionismua hartu behar luke. Budismuak ahaztu egin nahi du mundua; Kristianismua, berez, ona da, zuzena, baiña ezingo diegu 400 milloer gizoneri besteren erlijiorik ezarri.

Gizadiak amets lilluragarrienak ditu Jubei'k bere "Ulerpen haundiaren liburua"-n. Utopiarik maitagarriena azaltzen zaigu bertan, ta Sartalde-Sortaldean ametsik gozoenak etorkizuneko gizadi harrigarri batean ikusten ditu egiztaturik. Nazio-herri bakarria izango da mundua, ta 3.000 aministrazio-banapenetan barreiatuko dire gizonak. Bakarria izango da arraza. Emakumeak gizonen pareko jantziz ta eskubidez ibilliko zaizkigu. Urtero berrituko du ezkontza, halaxe nahi duenak. Honelako jakingarri asko ditu ametsezko gizadi honek. Erlijio denak desagertu egingo dire, baita Konfuzionismua bera ere. Ez ahal dire ageri hemen Platon'en eta Moro'ren oin-urratsak?

LIANG XI-TXAO. Ju-bei-ren jarraille zen, baiña berak ez zuen uste Konfuzio erlijio-sortzaille denik. Puntu honetan, europearrek maisu honezaz diotena egia omen da. Xi-txao idealista da Filosofian: gure izpirituak "ikusten" duena sasi-izadia da. Teoria berezia du hillezkortasunaz: Txina, India ta Europa'ko ideia-apurrez egiñiko iruditxoak. Gizarteagan izan dezakedan hori bakarrik da nere hillezkortasuna. Xi-txao'k bihotzondoak maite ta miresten ditu Lutero ta Kant. "Mundu osoaren aberaskia da Kant; ez da hemezortzigarren mendekoa bakarrik, gizaldi guzien gizona baiña", esango digu Xi-txao'k.

Urte hauetakoa dugu Sun Jat-sen; honen itzalak betetzen ditu mendearen lehenbiziko hiru hamarre-

XI.DIV  
koak. Aldi luzean eta lurralde zabaletan, gogo handi honen egalpean kokatu da Txina-herria. Baiña laga dezagun gerorako. Jat-sen'en ondotik, edo hobeki, honen eragitez, datoz geroxeago beste bi izen: Hu Txe ta Fung Julian. Hirurok aztertuko ditugu, hauek baitire Txina'ko izpirituaren erraldolak.

Aministrazioaren eta irakaskintzaren aldakuntzarekin hasten da kulturaren europeargintza. 1912'ak, urteberriarekin, Errepublika dakar. Hamaikatxo gauza ankar gora joan ziren orduan. Legedi berriak jalo ere bai, Europa'koan arabera. Europa eman nahi zioten gazteriarri Ikastetxeek. Hizkuntza ulertezia baztertu, ta Prensa dena mintzaira bizian hasi ziren idazten. Europear girozko hiriak jelki ziren Txina'ko lurretan. Ta idaz-izulpenak eruz hasi zituzten: nobela ta dramak, prosa ta oleria.

Txinatarrenizat hain egosgorra den Europa'ko Filosofiak atek irikita aurkitu zituen. Tolstoi ta Dostoiebski, ta eskandinabarrak, Wilde ta Croce: denetarik heldu zen zerbait sort-herriaren izpiritua berritzeko.

JEN FU (1853-1921) dugu langille hauetatik lehenena. 1912'an Pekin'go Unibersidadearen Erretore zen. 1898'an Thomas Huxley txineratu zuen, eta honen ideiak edonora zabaldu. Arestian aipatu dugun eta aurrerago ikusiko den Hu Txe'k orduan irakurri zuen, hamalau urterekin, "Evolution and Ethics" liburua. Montesquieu, Adam Smith, Spencer, Stuart Mill, E. Jenks: denok bere zeruko izar bihurtu zituen Txina'k. Hala ere, aipatu hauetan ez da filosofialari haundirik. Fu'ren gogoko mutilla Spencer gertatu zen bereziki.

koak. Aldi luzean eta lurralde zabaletan, gogo haundi honen egalpean kokatu da Txina-herria. Baiña laga dezagun gerorako. Jat-sen'en ondotik, edo hobeiki, honen eragitez, datoz geroxeago beste bi izen: Hu Txe ta Fung Julan. Hirurok aztertuko ditugu, hauek baitire Txina'ko izpirituaren erraldoiak.

Aministrazioaren eta irakaskintzaren aldakuntzarekin hasten da kulturaren europeargintza. 1912'ak, urteberriarekin, Errepublikak dakar. Hamaikatxo gauza ankaz gora joan ziren orduan. Legedi berriak jaio ere bai, Europa'koan arabera. Europa eman nahi zioten gazteriari Ikastetxeek. Hizkuntza ulertezina baztertu, ta Prensa dena mintzaira bizian hasi ziren idazten. Europear girozko hiriak jeiki ziren Txina'ko lurretan. Ta idaz-itzulpenak erruz hasi zituzten: nobela ta dramak, prosa ta olertia.

Txinatarrentzat hain egosgorra den Europa'ko Filosofiak ateak irikita aurkitu zituen. Tolstoi ta Dostoiebski, ta eskandinabarrak, Wilde ta Croce: denetatik heldu zen zerbait sort-herriaren izpiritua berritzeko.

JEN FU (1853-1921) dugu langille hauetatik lehenena. 1912'an Pekin'go Unibersidadearen Erretore zen. 1898'an Thomas Huxley txineratu zuen, eta honen ideiak edonora zabaldu. Arestian aipatu dugun eta aurrerago ikusiko den Hu Txe'k orduan irakurri zuen, hamalau urterekin, "Evolution and Ethics" liburua. Montesquieu, Adam Smith, Spencer, Stuart Mill, E. Jenks: denok bere zeruko izar bihurtu zituen Txina'k. Hala ere, aipatu hauetan ez da filosofialari haundirik. Fu'ren gogoko mutilla Spencer gertatu zen bereziki.

Honen ondotik eta bere aurka-edo BANG KUO-BEI (1877-1927) dator eta Jen Fu'k baiño uzta opa-roagoa bildu zuen Europa'ko Filosofia-soroetan. Ogeitabost urte zituela, Kant'en "Kritik der reinen Vernunft" (Arrazoi soillaren Kritika) txineraz eman zuen. Geroxeago Schopenhauer hartuko du gidaritzat, eta Nietzsche ere adiskide izango du. Jen-Fu'ren kontra, Spencer ez dela batere haundi Filosofian esango digu Kuo-bei'k. Hoinbeste bide ibilli ostean, Kuo-bei gogaitu egin zen Filosofiaz. Ogeitahamar urterekin honelatsu hitz egingo du: "Aspalditik nago Filosofiaz nekaturik. Teoria asko ditugu egiadunak, baiña atsegin ez zaizkigunak; ta kontrara, aunitz burutapen gustoko, desegiatuak". Kuo-bei Europa'tik ikasitakoen artean galdu zen. Illuntasun beltzez kolpatu zien nunbait gogoia Schopenhauer'ek, eta 1927'an Pekin'go Errege-jauregietako aintzira batean ito zuen bere burua. 50 urte bakarrik zeuzkan hoinbeste lan egindako gizonak!

1919'an bi pentsatzaille joan ziren Txina ikus-tatu ta bertako semeeri irakastera: John Dewey ta Bernard Russell. Unibersidadeetan mintzatu ziren; baiña txinatarrek (lehenago Kuo-bei'ren itzulpenak bezela) ez zituzten gehiegi konprenitu. Hala ere, arrera txeratsua izan zuten, Dewey'k batez ere, honek eskolatua baizen Hu Txe. Horrezkero, zenbait urtetan, Pekin'en irakatsi zioten Russell'i bere Filosofia; baiña hau ez zen egundo inglesaren iturri garbikoa gertatu.

Esan beharra dago, guzcion gaiñetik trasformis-mua izan zela Txina'n txalotuena, Darwin, Spencer eta Haeckel'engandik hartuta. Lehenengo bi hama-

rrekoetan dogma zihurra izan zen trasformismua-rena.

Txina-Europa'en hartuemanetarako inportantzia haundia du LIANG XUMING'ek (1894). 1922'an liburu ospetsu bat argitaratu zuen: "Sartalde-Sortaldeetako zibilizazioak ta beren filosofiak". Oso kuraia-tsua omen da sartaldetarra, ta aurreramñez kezka-tua, bere gurariak ase nahi lituzkena; txinatarra, ordea, neurritsua ta soseguz betea; induak, berriz, larrugorritan bizi nahi luke, desira denak suntsituaz. Sartaldetarren izaera hori, dio Xuming'ek, baztertu egin behar da; baiña indutarrek ere ez garamazkite iñora. Beraz, txinatar izpiritu-aiurria behar du munduak. Europa'ren jakintza-demokraziak gordetze-koak dire, baiña konfuziotar gogoz izan-berrituta. Sartaldeko horiek atxiki bai, baiña txinatar jakindu-riaren neurritasunez jantzirik.

Estetikari ere jaramorik aski egin zaio Txina'n TSAI JUEN-PEI'k Alemania'tik jaso zituen bere ideia nagusienak (Paulsen). TXU KUANK-XIEN'ek Croce'ri egin dizkio itzulpenak eta italiarrak jarrai-tzaillerik franko izan du han.

Horra harri-mugarik nabarmenenak. Alferrik luzatzen ahalegindu gabe goazen, ba, Txina'ko adi-men-gaillur gotorrenak ikustera.

#### b) **Txina'ko Filosofiaren izar-gidariak.**

SUN JAT-SEN (1866-1925). Txinatar adimen argi honek Lenin dakarkit neri burura, beti jaiot-herritik kanpora ta erreboluzio-ametsetan ibiltze ho-rretan anai baitire. Kantung'en jaio zenetik heriotza-

uneraiño erbestean edo erbeste-arriskutan ibilli zen Sun. Asaldiaren ta erreboluziogillearen irudi bizia, bere asmo-ideiak ludi guzian aldarrikatu zituen. Nunahi etsaiak, edonun lagun eta jarraitzailleak: horrelako zen bere gizartea. Hong-Kong'en eta Honolulu'n eman zituen bere ikastaro-urteak, eta Ameriketan ere ikasi zuen Medikutzarako. Sort-herrira bihurturik pot-egin zioten ahalegiñak eta estranjeriko bide elkorrak ibilliaz bospasei aldiz mundua jirabiratu zuen: London'etik ekin zion batez ere bere erreboluziorako azpi-lanari. Jat-sen gizon beroa, bihoztuna, idealista zen. Dirua bildu, lagunak elkartu, izkribuak idatzi: jardun gogorra zuen Sun'ek erbeste-urteetan.

Lincoln'en "Gettysbug Oration" delako hitzaldia ezagutu zuen Nortamerikan, eta hemendik jaso zituen gero "Demokrazia Hirukoitza" izendatua. Bide guzian buru, han, 1912'ko egunsentiarekin etorri zen erreboluzio-urratzea: hara mundu berri baterako irikita, ta hain zuzen mundu hori Europa amestua zen gehienbat. Txinatar aunitzen ames-kabia hementxe zegoen, ta orain, Erreboluzioarekin, asaldari gazteen ideiak europear labean berotuta zetozen. Hamarretik ogeirakoan europeargintza da Txina'ko zeregiñik premiatsuena, ta lan honen gidari Jat-sen da.

Politika-erreboluziogille izanik, gizarte-filosofia du Sun-ek bere ideiaesparrua. Lincoln'en "Populua-ren, populuagatiko ta populuarentzako Gobernu" (The Government of the people, by the people and for the people) oso gogoko zuen txinatar seme honek. Gaiñera, Frantzia'ko "Liberté, égalité, fraternité" hura nahi zuen herriarentzat. Herriaren Gobernuak eta askatasunak abertzaletasuna emango zuten; he-

rriarengatiko Gobernuak eta berdintasunak, demokrazia; ta herriarentzako Gobernuak eta anaitasunak sozialismuak sortuko zuten. Ikusten duzuenez, europear koipez gozatuta dabillan ideia-makifia dugu ideologia hau. Ez noa, orain eta hemen, bere gizarte-teoria, agitz interesantea dela ere, xehetasunez agertzera, nahi dudan frogantzarako aski baita aipatua. Sun Jat-sen'en, ogeigarren gizaldiko txinatar lider honen, burutazioak gureak diru, eta ideiaok sekulako zabalpena izan zuten aberri haundian. **San Min-txu-i** edo "Demokrazia Hirukoitza"-ren izenpean argitara eman zituen bere ideia-asmoak. 1925'a ezker on-hartu egin zituzten Sun'en burutapenak haren aberkideek. Edonora barreiatu zen dotriña hau, ta eskoletan derrior ikasi beharra zegoen laburpen-liburutxoetatik.

Moral eta jakinduri zaharrak behar ditu Txina'k, baiña ikas ditzagun Sartaldeko jakintzak ere, dio Jat-sen'ek. Sun'en ekonomia —demokrazia—, ta politika-ideiak Europa'tik hartuak dire, baiña hauen guzieren azpitik, sostengu ta eusgarri, konfuziotiar tradizioa dago. Konfuzio'ren "ulerpen haundiaren munduan" oifñarritu beharko da gizadiaren pake santua. "Eginkizungabeko jakintza, ez da jakintza ere. Jakite-egiteak bat dire. Ez-egitea, ez-jakitea da". Hone-tan ere Konfuzio dugu maisu.

Aipa dezagun hemen Jat-sen'en jarraitzaille ezagun bat: TSIANG KAI-XEK (1886). Honek ere ekintzara dei egiten die bere aberkideeri. Txina'ko birtute zahar, beneragarriak, berritu egin behar dire (zuzenbidea, zuhurtasuna, neurritasuna...), ta gu-

ziok jar ditzagun Sartaldeko kulturaren txinargin-tza-zerbitzuan.

HU TXE (1891). Hamalau urte zituen mutikoak eta Huxley'ren "Evolution and Ethics" irakurriaz zoratuta zebillen. Txe'k bi urtetan burutu zuen hamar urteko ikastaroa. Batzuentzat ez da filosofu, baiña, zalantzarik gabe, Txina gaztearen maisurik maitatuenetakoa dugu. Denboraldi luzean, Pekingo Unibersidadean, irakatsi du, ta lan ederrik aski egin ere bai Txina'ko nahiz Europa'ko filosofiez.

Muttikotatik zituen oso gogoko Huxley ta Stuart Mill. Jainkogabea bihurtzen da laister eta erlijioaren etsai. Zazpi urte Norteameriketean egiten ditu Cornell'en eta Columbia'n. Hemen Dewey ezagutzen du, ta gero Hu Txe izango da, Txina'ko ikastetxeetan, honen presentatzaillerik azkarrena. Biblia irakurri du, ta Mendiko Hitzaldia ta Testamentu Berriko otzantasuna ditu atsegiñen. 1917'a ezkerro erreboluzio baten eragille egiten da: "Alda dezagun txinera hizkuntza, ezpaiñetan darabilkigun hizkeraz". Ohore ta itzal zabala irabazten du Txe'k bere aberrian. 1938'an Washington'en Txina'ko errepresentatzaile izendatzen dute.

Hu Txe'k nahiko hartueman izan ditu komunistakin, baiña laister hausten ditu lokarriak. Konfuzio'ren eskola ez du deus maite: "Konfuzio'ren Sei klasikoak erabat deskapaz dire aginte-lider bat sortzeko", esango du berak.

Hu Txe'ren ideologia ekletikoa da, ideia batzu nahas-mahas egiñik sorturikoa. Ipiñi dezagun batetik Dewey, Huxley ta Darwin bestetik, Descartes'en



ruan hauxe da gizargirik diztiratsuena. Konfuziotia-  
rra da, edo izan da; Konfuzio'gandik hasi zion bere  
lanari. Lan mardula egin du Ju-lan'ek, batez ere  
1940'tik 1950'era doan hamarrekoan. Pensilvania'ko  
Unibersidadean irakasle izan zen. Txina'ko Filoso-  
fiaren kondairatzaillerik onena da, ta bere aldetik  
ere zerbait ederrik sortu du istoriarako. Pekatu-  
aurreko urteetan (gero jakingo da zein pekatu den)  
argi ta trinko eman zigun pentsamendu-muifia.  
Kant'en distintzioa egiten du honek ere: **noumenon**  
delakoa ezaguneziña da, ta utz dezagun bere illun-  
bean, eziña baita Metafisikaren egitekoa.

Komunismuaren garaipen-ondoren aitortza triste  
bat egin du. Pekataritzat aitortu du bere burua Es-  
tadu berriaren aurrean eta esanak oro desesan ditu,  
Marsismua zehatz ederretsiaz. "Erreboluzioaren ta  
kontraerreboluzioaren arteko gerratean neu izan naiz  
gudu-kriminalik printzipalenetako bat", esan digu Ju-  
lan'ek. Honela desegin da bizitza osoko lan luze ta  
frututsua. Harrezkerø Mao'ren morroi da. Buru-lisiba  
honen ondotik, Ju-lan Marsismuaren langille bilakatu  
da, Partiduaren zerbitzurako buru argi bat. Holaxe  
hil da etorkizunerako gizon hau. Lehen Kant'en mai-  
tale zen, orain Marx'en sasikumea. Europa'ko ideiak  
erdibitu dute Ju-lan.

Marsismua. Guziok dakigu Txina Komunismu-  
pean daukaguna; Marsismua da, beraz, Filosofia  
ofiziala, gaur-egun on-har diteken bakarra. Euro-  
pa'n bildu den materiatiar uzta hau da Txina'ko  
izpiritu-mandioetan gordea. Ba-dakigu, gaiñera, Fi-  
losofia hau ez dela ekintzarako baizik: 600 milloe  
txinatar Europa'tiko ideologia honen mende bizi dire.

Txina'ko Komunismuaren arbasoa TXEN TU-SIU (1942'an hil) izan da. Lehenbizi sozialismutik hasi zen, ondoren Komunismura iristeko. 1921'ean jaiotzen da Alderdia ta Tu-siu Sekretario egiten dute, ordurako komunista baizen Hu Txe'rekin elkarren adiskidetasuna hautsita. Txinatar komunistak errusoan katillutik gosalduta zuten; erlazio hertsia ziren bi Partiduen artean. Sun Jat-sen'ek ere lanerako aukera egokiak eman zizkien, derriorak eragifiki noski. 1923'an Sun'ek nazionalista Partiduan hartu zuen komunista Alderdi gaztea. Tu-siu'k eragin handia zuen, garai haretan, Partidu-barnean, baita Mao'gan ere: "Nere baitan Txen Tu-siu'k, bestek izan ez duen influentzia ukan du agian", dio Mao'k berak.

Baiña Txina'n ere sortu zen Marsismuaren eterodosia. Gauzak ongien zijoazenean, Gobernuarekin asarretu egiten da Tu-siu, ta aitzaki-maitzaki honekin ideologia-burruka hasten da Partiduan. Tu-siu gaurko Krutxef'en paretuko gizona zen; bere semeekin izaten du nunbait lehenen oztopoa, ta isilpean izanarren, inportantzia handia du honek, haiek Partiduan oso aurreratuak baiziren. Azkenik, 1927'an, polemika gogorra sortzen da Txen Tu-siu'ren eta Mao Tse-tung'en artean, Txu En-lai ere honekin doala. 1929'an Alderditik bota egingo dute Txen, eta 1942'an bazterturik, ahaztuta, hilko da. Aitzinago ikusiko da ez dela Tu-siu bakarrik Txina'n Komunismuaren errege-bidea utzita, bidetxigorretatik joango zaiguna.

Tu-siu'k, 1915'ean "Gazteri berria" aldizkaria sortu zuen, ta hilleroke hau izango da hain zuzen

garai haretan Txina'ko irakurriena. Ideia berriak zekazkien eta gai gehienak Sartaldetik ikasiak ziren. 1921'era artean ez da komunista deklaratu, ta Hu Txe'k ere bertatik zabalduko ditu bere Sartalde-tiar gogapenak. Antikonfuziotiar agertuko da Tu-siu bere aldizkarian, esanaz Konfuzio aurrerapen-egarriaren sasi-asegarria dela. Darbindiar eboluzioan zimentaturik, askatasuna, berdintasuna, ta anaitasuna dire aurrerapen-bide. Etorkizuneko mundua sozialista da. Tu-siu komunistak Kristianismuari egi-ten dizkion goraiamenak ongi txundigarriak dire, azkenean bere errota-harriari laguntzeko bada ere: "Mundu guzian on-hartua da Kristianismua ta ez da iñungo jakintsuren eskolarik hori ondatu dezake-nik..." Kristo'k karidadea erakutsi zigun ta hori geretu egin behar genuke... Gauza hauek ez dire europear, ez amerikar: gizadiarenak dire... "Agur dezagun Jesus'engan gizonen lagunik onena". Amaitzeko, ordea, Tu-siu komunistak galdera hau egingo digu kristauori: "Komunismuaz zergatik ote diote gaurko kristauek gure aroaren zigorra denik, Jesus'en dotriña bera izanda?" Hara, ba, nora etorri zaigun!

Txina'k ez du bapatean lertu gaurko Mao-Tse-tung'en komunismu desgizatu. Ikusi da Tu-siu'ren komunista-kalbarioa, ta ez da bera bakarrik hone-lakoa. Txinatar Komunismuaren eskubi-egaldeak izen ospetsurik izan du. 1930'ean LI LI-SAN Komin-tern'aren aurrez-aurre jarri zen. Bera izan da Txina'k sortu duen Troski'ren bir-irudi leialena. Mao'rekin asarretu ondoren, kondenatu egin zioten bere bidea. Li KI ere artaldeko beste ardi beltz bat dugu. Ideio-logu ona zen, eta "Marx'en bizitza" baten egillea da.

Alemaneratik egin zituen zenbait itzulpen; azkenean Tu-siu'rekin batera jaurtiki zuten Partidutik. JE TSING ere troski zikin bat da, materialista epela. Liburutegi haundi bat sortu zuen Xangai'n eta bertatik zabaldu argitalpenik aski: Condillac, Diderot, La Metrie, Demokrito, Epikuro, Plejanof, Dedorine, Huxley, Einstein... Ikusi ditekenez, ba-da hemen Marsismu-eterodosiarako bide erosorik...

Komunismuaren seme galdu hauek gora-behera, ba-dire bestelakoak ere, ta guzien buru MAO TSE-TUNG (1893). Hemezortzi urterekin ekin zion erreboluzio-lanari, Sun Jat-sen'en ondoan. Geroztik ha maikatxo gudualdi izan du agintera igo arte.

Mao'k ez zuen derrepente esan Komunismua behar zenik, Txina ez zegoela honetarako prest eta "Demokrazia Hirukoitza" eman behar zitzaiola bai-zik. Sun Jatsen'en gizarte-helburuak burutu nahi zituela Komunismuak esaten zuen oraindik 1940'an. Zaragi zaharreko ardoa ozpiña zela jakin ez zedin ura bota zioten. Japoitarren aurkako lana zen ordukoa ta ez zuten kapitaldunik uxatu nahi; ondatsunen jabetasuna ez zen debekatuko, irabaziak bi-dezko zen neurrira erakarri baiño. Jakiña, Demokrazia gorde egingo zen eta klase guziek izango zuten beren aginte-apurñoa. Ez zuten nahi ez kapitalismurik, ez sozialismurik: erdiko ur-ardoa baiño. Hori zen, Mao'k zionez, Txina'ri zetorkiona. Partiduak bazekien, bai, nora jo, baiña hori ez zen propagandan gogoratuko, beste galtza-gonadun zera hori baizik.

Horiek dituzu Txina'ko Marsismuaren teorikorik ezagunenak. Horiekin bat, bat edo beste aipa liteke oraindik. KUO MO-JO (1893) kondairatzaillea

da ta Txina'ko istoria Marsismuaren ikus-moldeetan sartu duena. LI TA, teoriko hutsa. NGAI SE KI'k dena Marsismuaren bidetik ikusten du ta edozertaz dauka bere marsista-eritzia.

Ez dago zer esanik: Engels, Marx, Lenin eta aidekoak aspaldidanik izan ziren txineratuak, eta Marsismu-leninismua izan da azkeneko hamarrekotan ideologiarik zabalduena, baita 1949'ko ondamentia heldu aurretik ere. Fetxa honetarako azpijana ongi egiña zegoen, ta Txina-herria, sagar musu gorri paregabea, eskuetara jaulki zitzaien. Ta bere ta gere ondamentirako, munduko populurik haundienak Europa'tik eramandako ideologia-argia du eguzki.

KRISTAU IDEOLOGIAREN alde ere nahiko lan egin zen bere egunean. Santo Tomas berriro itzuli zan. Wulf, Maritain, Gilson, Lecomte de Noüy, t. a. ere bai, ez zuten, ordea, edadura zabalik irabazi. Komunistak nazioaz jabetu aurretik hiru Unibersidade genituen katolikuok, ta hamabost Protestanteek.

Hauek ditugu, ba, Txina'n europear kutsu gehiena eramane duten ideologiak. Gure lan hau Txina'ko ideologiaren kondaira izan balitz, gehiagori ere lekurik eman beharko genien, baiña hasieratik dakigu gure zeregiña hertsia dena.

## II.—OIARTZUNIK OZENENA JAPOI EDERREAN.

Hamabosgarren mendean hasi zen Japoi Sartal-detarrekin hartuemanetan; baiña gizaldi ta erdiren maitemien ondotik, zapuztapen zitala egin zien europearreri. Europa'ri sorbalda emanik, berekasa

ekin zion kondairari Japoi'k. Japoitarrak almendra-be-giek ez zuten harrezkero arrotzik ikusiko. "Geixa" xoratu baten antzera, Japoi-ren arima bere gerizon-do loratuen lillurapean eseri zen, Fusijama zuri-hillari begira, aberri-bihotzaren taupadak soilik etzunez. Sartaldeari itxi egin zitzaizkion atearak.

Hauek hola, hemeretzigarren gizaldia aurrera zi-joelarik, 1854'an, amerikar gazteak eupadaka heldu ziren, amenazo ta zarataz. Berriz ere ba-zetozen kanpotar gorrotagarriak Japoi'ko arima amesleari lepondotik astifñaldi bat ematera. Japoitarrak ikusi zuten, bai, sort-herria paper-jauregia zena ta, atearak iriki ezik, etxea bera ere ondatu egingo zietela, ta dena, herri osoa, europeargintzari eman zen. 1860 ezkerre jaio da Japoi gazte-berritua. Mende-erdian buruz buru aldatu zen, ta bere Erdi Arotik supituan gaurko aurrerapenen jabetzara igaro. Gizaldi-erdi honek bi fetxa jakin ditu egunsenti-illunabartzat: 1854'koa, amerikarrekin komertzio-tratadua egiñaz, eta 1905'ekoa, errusoeri hiru ordu-laurdenetan ma-rina dena ondatu zitzaienekoa. Orduantxe ezagutu ziren Japoi'ko herriaren bibote errespetagarriak!

Ez du Sortaldean beste lurraldek ezagutu Ja-poi'k jasan eta sofritu duen hainbateko europear-gintza sakonik. Japoi'ko ugartedi nahasian ur-bide-txigorrak hemengo kresalaz erneak joan ziren he-meretzigarren ehunkian. Europear itsasontzien kol-ko, ez ziren salgarriak bakarrik iritxi, han zetorren Europa'ko gogoia ere.

Japoitarrak arima sentikorra da oso, ikuturik sa-murrenak oiartzun zabalak ditu barnean. Sentikor-tasun mehea ziñez: agian lurraldearen eguraldi-gi-

roak, klimak, hain aldakor ta gora-beheraxkaduna izanik, bere arabera mamitu ditu gizagogoak ere. Japoitar gorputz ttikietan eder-gosea dabil boilboilka. Hauxe bai dela ederraren gosetan dabillen herria!

Baiña sentikortasun honek ba-du bere alde gaiztoa. Munduaren gose delarik, honen mendeko da sarri Japoi'ko arima dena, ta honela ikuskizunen jostaillu bihur diteke, eder gose horren eragitez. Hain zuzen, sentikortasun honek biguindu egin dizkio gizonari arima-hezurak. Psikologia bereizi honen jokabide asko esplika dezaizkiguke Japoi'ko istorian.

Egungo pentsamendua aztertu aurretik, ikus dezagun, lehenen eta labur, gaurko pentsalarien arbasoek Europa'tik sofritu zuten enbata bortitzaren indarra zenbaterainokoa izan zen.

#### a) **Gaurko Filosofiaren atarian.**

Hemeretzigarren azken mende-erdian ta oraingoaren lehenbiziko hamarrekoan, ba-zen Japoi'en guziek egiztatu nahi zuten kultura-lege bat: japoitar arimaren eta auropear adimenaren arteko ezkontza. Bi ziment-harri hauen gain jasoriko harkupe lore-tutik igaro behar zuen, guzien eritziz, Japoi'ko izaera zaharrak, etorkizun berrira iritxiko baldin bazen. Kultura-lege honen argitan ekin zioten lanari Japoi'ko filosofialariek.

Japoi'ko Filosofia mutikoak hiru izen bikain ditu: **Jukixi Fukuzaba** (1835-1901), **Hirojuki Kato** (1836-1916) eta **Tetsujiro Inuje** (1855-1944). Hauek dire Japoi'ko Filosofi-berriaren lehenen enarak.

FUKUZABA da gaurko japoitar demokraziaren aita. Ozenki esan zien berak aberkideeri: zeruak ez du ez goiko, ez beheko gizonik egin, guziok gera elkarren pareko. Fukuzaba'ren ideia hau anglo-amerikarren aberaskatik dastatua dugu. Japoitar izkribatzaille batek dion bezela, Fukuzaba'k Sartaldetik jasotako burubideok Japoi-herriak bizi izan balitu, bestelako kondaira izango zuen aberriak. Ideia berdintsuak predikatu zituen NADAE'k ere, Rousseau'ren "Contrat Social"-etik hartuta. Askatasun-egarria, beraz, bi iturrion ozkirriak sortu zuen Japoi'ko lurretan, hau da, anglo-amerikar bizitzak eta Frantzia'ko Matxinada-arbasoek.

KATO'k, ordea, Alemania'ra begiratu zuen, eta bestelakorik idoro. Haeckel'en bilakaera-teoriak onhartuaz, aginte-maitale agertu zen. Transformismubidetik aginte-asolutismua sendotzera heldu zen: ez da naturalezatiko eskubiderik, indartsuenaren esku bide-legea baiño. Hala ere, ez zuen ontzat eman Inperatorearen jainkotasunik. Hemen lerropea dezagun zera: Europa'k eman zizkiola (berriz ere!) Kato'ri burutakizun hauen oiñarriak.

INUJE dugu eskierki hirurotan Europa'ko ideiez kutsatuena. Alemania'n egin zituen bere istudio-urteak. Aberrira itzultzean, Tokio'ko Inperatore-Unibersidadean irabazi zuen irakas-aulkia. Ogeitahamar urte-zehar bertatik zabalduko zituen, gazte-izpirituak bortizki dardaratuaz gaiñera, bere Filosofia-pentsakizunak. Sartaldeko pentsamenduaz lan luzeak egin ditu ta, Sortaldeko Filosofiaren ezagutzaille zolia izanik, bi munduon jakituriak ideia-sorta bakarrean elkarganatu zituen. Aipagarria da

1897'an, Sartalde-Sortaldeetako filosofiak gonbaratuaz, eman zuen mintzaldia. Inuje'k sintesi bat nahi zuen. Kato'ren eboluzio materiatiarraren etsaia zen, eta bere aldetik eman zigun sistema Alemania'ko idealismuz aski legamituriko opilla dugu. Kato'k eta Inuje'k, biok, kontraesaka jardun zuten; baiña, hori bai, etsaigoa bera ere Europa'tik eramana zen.

Hemeretzigarren gizaldi-azkenerako japoitar adimenak lortu du halako heldutasun bat. Gizaldi berriarekin Japoi'ko intelektualen artean europazaletasun itsu (?) bat ezagutzen da. Hemengo oro aberriatu egin nahi zen, bide batez beren tradizio-lokarririk hautsiaz. Japoi'ko bihotz-adimenak sukarretan zeuden. Baiña —iragarri zitekena zen— gehiegikeria honek kontraeragin bat sortuko zuen berehala. Honek ere, ordea, ez du iraupen luzerik izango, ta urrengo hamarrekotan ere japoitar gogo-ontzitzoa hara-honako batean ibilliko da. Erdi etenda-edo zegoen europeargintza lehenen Gerrate Haundiak bizkortu egingo du, ta japoitar arimak eta europear adimenak “debrazeteko” adiskidetasun iraunkorra ezagutuko dute. Hala beharrez, urteotan, 1920'tik 1940'rakoan, jaioko da Japoi'ko Filosofia-bizitzaririk bikaiñena, ta hain zuzen lillurapen horien seme izango da. Europa'ko bizitzaren ondakin baliotsu nahiz kaskar asko bilduko da Japoi'ko ugartediaren ondartzetan. Baiña ez iñoiz herri-izaera zeharo arbuatuko. Ta honen testigutzat bi gudualditan garaille izaniko Nogi jenerala ekar genezake; hara-kiri delakoa egingo du berak, tradizio zaharrerik jarraituaz, Inperatore zenari leialtasunik irmoena erakutsi nahirik.

Ta zirri-borro hauekin heldu gera Japoi-ko Filosofiaren Urre Arora.

b) **Nixida ta Tanabe'ren inguruan.**

Bi izen gailen ditu Japoi'ko Filosofiak: **Kitaro Nixida** (1870-1945) ta **Hajime Tanabe** (1885); eguzki hauen inguru-auzoan dabilta gaiñerako izar-kumeak. Nixida haundiaren dizipulu ta jarraitzaille izan da Tanabe, azkenean haren lehiakide ta etsai biurtzeko. Biori eman zitzairen hain ohorezko den Kultura-Medailla Haundia.

NIXIDA'k inportantzia paregabea du japoitar Filosofian, bera izan baita izpiritu jirabira guzien ardatza. Bere alde nahiz kontra, beti bera argigidaria Japoi'ko itsas-bide nahasietan. Ez noa bere burutapenak aletzera, ez baita hori oraingo ta hemengo eginbearra; baiña zertxobait ezagutu beharko dugu.

Esperientziaren konzetu berezia du. Esperientzia hutsa, garbia, zerbaiten musu bat da arazoiketagebea ta judikapenik eza. Beste gabe, kolore bat sumatzean, ez du esaten esperientzia honek kanpotikoa denik, edo holako nahiz halako denik. Ez dugu zera besterik: kolorea. Esperientzia huts-garbia bitarteko-gabea da, gaiñera. Ni-a esperientzia honetatik jaio da. Alai-une batean, adibidez, Ni-a galdu egiten da alaitasunean. Ni-aren gaindiko zerbait dago hemen eta beronen billa gabiltz. **Bat** haundi ta zabal baten hirrika da Ni-a. Esperientzia-intuziopen honen bidez igarokorra aurkitu du mundua Nixida'k, eta hala ere sosegu-pakeen billa doa filo-

sofua, ta gogorapen luze-nekagarrien ondotik Eze-  
rezki, izaki ezerez, batean atseden hartuko du bere  
lana gaillenduta. Pentsamendu hau ongi sustraitua  
daukagu benetan Sortaldeko izaera ezerez-zalean.  
Dena da hemen baretasun, ta honela (sartaldetia-  
rrek egin ahal izan ez dutena) Nixida'gan batu dire  
Filosofia bakarrean, aipatutako izaki-igarokortasun  
guzizkoa ta gelditasun egon-beharrezkoa.

Ta gurera etorrita, ikus dezagun zer eman dion  
Sartaldeak Japoi'ko pentsatzaille gorenari. Lehenik,  
Filosofia metodu bat. Hau da agian nabarmenkien  
Nixida'k guretik hartu duena. Sosegu billa dabil eta  
honetarako Filosofiari joan zaio laguntza-eske. Eu-  
ropear arrazoi-bide bat hartu du ta ez besterik.  
Japoi europeartu egin da, ta egoera ta biziera be-  
rrien pake-iturria Filosofia da.

Teknika bat behar zuen aberriak eta aukeratu  
duen Filosofiaren hauxe da mundu teknikoari zego-  
kiona. Zalantza bat datorkio hemen edonori: tekni-  
kak ez ote giza-gogoia behartu ta bere arabera mol-  
datzen, hau da, Japoi'k gauzetarako teknika ikasi  
ta erabiltzen badu, ez ote dio jokabide honek, beste  
gabe, japoitarren gogoari teknika honen aurkitzai-  
lle direnen (=europearren) pentsa-moldea erasten?  
Teknika hau ez ahal da atzeko atetik sartuta, Sor-  
taldeko izaera berezia hilko duen etsai maltzurra?  
Nixida'rentzat beinipein biziera horrek, teknika-bizi-  
tzak alegia, adimenean ere pentsa-bide jakin batzuek  
on-hartzera behartzen gaitu. Japoi-k Sartaldeko tek-  
nikaren batera Sartalde beraren Filosofia-jokabideak  
beretu beharko ditu, kanpoko katilluan etxeko esnea  
izango badu ere.

Metodu-lan honetan Husserl ageri da Nixida'gan. Fenomenologia dabil hor tarteko, ta Kant'en kutsa-penak ere ba-dire. Honezaz gaiñera askabide zen-bait ere, soluzio dexente, Sartaldetikoak ditu. Espe-rientzia ta intuizioaren irakaspenak James eta Berg-son dakazkigute burura. Zerikusi hau zihurra da. Ta **Bat** deritzan eguzkidiztiratan Ni izarñoak itzala-razte horrek ez ote digu Fichte gogoratuko, soluziño hau ongi sortaldetiarra izanarren? Izaki ezerezaz jantziari, berriz, edo nahiago bada, Ezerez izandu-nari, Hegel'n sukaldeko lapiko-lurruna dario. Koktel hori Berlin aldean asmatua da. Hala ere, kapaz izan da Nixida Hegel'en izan-izozpetatik burua ateratzeko; ta Bergson'en intuizio pinpiriñaren ta Alemania'ko Filosofia kopetillunaren mutikoa da Nixida honen ideia-mundua, bere aldetik sortaldetar arima ema-ten diola.

Nixida'gandik Tanabe'gana doan zubi bezela, pentsalari-taldetxoa daukagu: KUBAKI (1876-1946), Nixida'ren kritikari gogorra da, baiña hau ere Eu-ropa'ko aitzurrez ari da artajorran, Kant'en jarraille baita. SODA (1881-1927) ere Nixida'ren aurka jeiki zen, eta bere lanik onenak ekonomiaz eman zituen, alemaneraz idatziak gaiñera. Hau ere Kant'en esku-makilla dugu. KIHIRA'k (1874-1949) etika-entse-guak ditu bereziki ta Spinoza'renetik asko jaso du. Bere Estadu-teorian Hegel'ek lagundu zion. KA-BAAI'k (1891-1944) gazte-multzo beroa bildu zuen inguruan; gizon hiztuna ta bizia hauxe. Tokio'n irakatsi zituen bere gizartearekiko teoriak, Inglate-rra'ko sozialismuaz aski baliaturik. NIKI'ren (1897-1945) pentsamenduak, berriz, beste biderik hartu

zuen: marsista izan zen beti ta bere ideiangatik aski eramana, azkenik heriotza giltzapean irabazteraiño. Europa'tik jasoriko ideien defendatzeko hil zen, ba. SEIXI HATANA (1877-1950) da Japoi'en kristau Filosofiak izan duen errepresentatzaillerik ezagunena. Kristau ideiez gain, ezagunak ditu hemengo zenbait pentsatzaile: Heidegger eta Spinoza adibidez. Japoi-tar lurretatik Europa'ra begira gaudela, kofesatu behar da gaiñera, intelektual gazteengan Kristianismuak izan duen influentzia zabala.

Aipatu bakarrik egin ditugunok Nixida'ren zuzentzaile dire, ta gehienetan (ez da noski larregi esatea) ez harek hemendik eramane dituen ideien akats-konpontzaile, Sortaldetik bertatik jasotakoena baizik. Holakoxe paradoxak daramazki kolkoan giza-izpirituak!

TANABE dugu beste izar-bizkia. Nixida'k eskolatua da, ta Kioto'n honen ondorengoa izan zen. Hamar urte-zehar maisuari segi zion, batez ere alemaniar idealismuan. Hegel eta Marx'i buruz zenbait azterketa sakon egin zituen, eta bion aurrez-aurre jarri zen, idealista ta materialista dialektikak arbuiatzean. Horien kontra gogor egiten du. Baiña zeramakien bidea bapatean desegin zion Gerrate Haundiak. Zorigaiztoaren ganibetak eta guduaren gorriak ariman zauri ezin-itxiak iriki zizkioten, eta harrezkero Filosofiarako bere ahalmenaz ba-ditu ha-maika zalantza. "Filosofia ez den Filosofia bat" idoro du: ez-jakitearen ederra ta bikaintasuna!, dio Tanabe'k. Azken aurkiera honen ondotik Unibersidadea utzi ta mendi-auzo batera eramane du bere bizitokia, ez baita ifun jakintza zihurrik, irmorik.

Tanabe'ren ez-jakitategaren jakinduria, Protestantismuaren anai dela esan du norbaitek, ta norbait hau japoitarra da hain zuzen.

Egunotan ba-dire beste zenbait izen ere. TETSURO BATSUJI (1889) izan da idazlerik emankorrena, ta ba-du Jesus'i buruz istudio bat. Guretzat aipagarria da herrien nortasunaz egin duen lana. Herritasuna eguraldi-girotik, klimatik, sortua omen da. Herrien arima moldatzeak eta kondairako kulturak iturburu hori dute jaio-bidetzat. Urruneko Sortaldearen klima tifo-giroa da; hurbilleko Sortaldeak eremu-klima du beretzat, eta Sartaldea zelai-girotan jaio da.

RISAKU MUTAI'k (1890) Sortalde-Sartaldea-ko pentsamenduak aztertu ditu. Izakiari berari erantsirikoa da Logika bat, eta bestea izaki-logika honen jakintza da. Sortaldeak ez du eman izakian bertan datzan logika horri dagokion logika-jakintzarik; lan hau Sartaldeak bakarrik egin du, Aristotele, Kant eta Hegel'en bidez. Orienteak logika bizi bai, bizi izan du, bihotza lagun duela; baiña adimenez ausnartugabea izan da.

Honeraifoko hauek ditugu Japoi'en Europa'ra begira esan direnetan jakingarrienak. Baiña munduaren bi parteen arteko anaikidetasunik ez da oraindik lortu; japoitar arima kezkatu dago oraindik. Gauza asko aldatu dire Japoi'en, aunitz on-hartu; baiña hoinbeste aldaketen arima ez da oraindik japoitar arima. Sartaldeko adimenari ostatu eman zaio, ez da halabaiña hango izpirituarekin elkartu. Tanabe'k eta areago DAISETSU SUZUKI'k (1870) sintesi baten ametsetan diardute. Izpiritu-lana gu-

ziona dugu, dio honek, eta izpirituak beren muiñean berdina dire. Beraz, elkar gaitezke.

Hau da 1945'etik honakoan Japoi'ko pentsatzailleen eginbeharrak astunena. Filosofo-talde berriak jaio dire harrezkero ta guziek dute Sartaldearen gosea. Filosofo-biltzarre batek Jaspers'en Filosofia ikastea besterik ez du bere zeregintzat. Heidegger'en, Jaspers'en eta Sartre'ren izkribu denak itzulitatu dire japoierara. Japoi'en gaur Filosofiarik barreiatuenak Marsismua ta Esistenzialismua ditugu.

Europa da, ba, Japoi'ren adimen-gidari (1).

**Intxausti'tar Joseba.**

---

(1) Laburpen honetarako liburu hau erabili da bereziki: "Las Grandes Corrientes del Pensamiento Contemporáneo", M. F. Sciacca'k zuzendua. Ikus lehenbiziko tomuan (P.M.D'Elia, 317-378 orr.), Japoi bigarrengoan (Seizo Ohe, 1181-1216 orr.).